

## OÑATI / 'Flashmob'-a egin dute liburutegian, Ganbarako kideekin

**Liburuaren Eguna ospatzeaz gain, liburutegian musika ere sartzen dela erakutsi gura izan zuten.**

Martitzenean, Liburuaren Nazioarteko Egunean, *flashmob*-a egin zuten liburutegian. Iragarri gabeko ekitaldia izan zen, eta ezustean harrapatu zituen momentu hartan Udal Liburutegian zeuden herritarrak. "Sorpresa izatea gura genuen, eta isilean izan genuen egunera arte. Polita izan zen herritaren erreakzioak, aurpegiak, ikustea. Gustatu zitzaiela esan ziguten gero", kontatu du Arantzazu Ibarrondok, liburutegiko arduradunak.

### Ganbararekin

Valladolideko liburutegitik hartu zuten ideia. "Liburuaren Eguna eta liburutegiaren 10. urteurrena lotuz, zerbait prestatu gura genuen apirilaren 23rako, eta Valladolideko liburutegian egin zuten *flashmob*-aren ideia gustatu zitzaigun. Debagoieneko liburutegietan, gainera, ez da horrelakorik egin. Ganbararekin jarri ginen harremanetan, eta baiezkoa eman ziguten. Berez joan da dena", kontatu du Ibarrondok.

Martitzenean, beraz, Ganbara abesbatzako 22 lagun joan ziren liburutegira 19:00etarako, eta, ordua heldu zenean, kantuan hasi ziren, bat-batean, eta han zeudenengan harridura sortu zuten. "Aspaldiko kantu bat berreskuratu genuen ekitaldi horretarako, *Short people*", argitu du Ganbarako zuzendari Aitor Biainek.

### Musika sartu liburutegian

Liburuaren Eguna eta liburutegiaren urteurrena ospatzeaz gain, beste helburu bat ere izan du *flashmob* ekitaldiak: beste euskarri batzuk ere sartzea liburutegian: "Liburuak bakarrik ez, musika ere badugu, eta hori ere sartu gura dugu, poliki-poliki, liburutegian. Gaur, esaterako, Anduaga eta Unzillaren kontzertua dugu, 19:00etan, eta musika sartzeko beste modu bat da. Gainera, herriko talde batekin egin dugun elkarlana ere izan da *flashmob*-a, eta hori ere garrantzitsua da guretako", aitortu du Arantzazu Ibarrondok.